JOLAZZ – MUSIKA BULEGOA - PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. PARTE-HARTZAILEAK

- Euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) jaiotako pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte hartu dezakete.
- Izen ematea egiten den unean, errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte hartu dezakete.
- Jarduera profesionalari dagokionez, Euskal Herrian egiten duen musikaria izatea ezinbestekoa da.

2. HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

- Jazz musika ikasketak abian dituen artista, artista profesionala edo erdi-profesionala izatea.
- Sormen-proiektua aurkeztea, Taller de Músics-eko ikasleekin lankidetzan garatzeko egokia dena.
- Goi mailako musika hezkuntza zentro batean ikasten egotea edo ikasle izandakoa izatea.
- Lankidetzarako gaitasuna eta egonaldi artistikoetan parte hartzeko konpromisoa.

3. EGONALDI ARTISTIKOAK

- Hautatutako artistak egonaldi bat egingo du Bartzelonan:
    - 2026ko ekainaren 26tik uztailaren 4a bitartean.
    - Egonaldian Taller de Músics-eko ikasleak hautatzeko kasting bat egingo du eta bertan aukeratuak izan diren musikariekin batera lan egingo du.

4. ERAKUSTALDIA (SHOWCASE)

- 2026ko uztailak 3: Bartzelonako La Pedrerako Talents Jazz Jaialdian.

5. LAGUNTZA ETA KONPROMISOAK

- Antolakuntzak bidaia-gastuak, ostatua eta dietak finantzatuko ditu kontratua sinatzean adostuko diren baldintzen arabera.
- Hautatutako euskal proposameneko musikariak 100€ jasoko ditu egonaldiaren eguneko, proposamen horretako kideen ordainsarien batura gehienez 400€ izango direlarik.
- Hautatutako Euskal artistak uztailaren 3an Bartzelonako La Pedrerako Talents Jazz Jaialdian egingo den aurkezpen publikoan parte hartzeko eta aurreikusitako datetan lan egiteko konpromisoa hartu behar du.

6. IZEN-EMATEA

- Eskaera formularioa bete eta epea amaitu aurretik aurkeztu behar da. Izen emateko epea apirilak 14a da.
- Beharrezko dokumentazioa gehitu: biografia, errolda edo egoitza sozialaren herria / hiria zehaztea, erreferentziak eta proposatutako sormen-proiektuaren azalpena.

*** Oharra**: egonaldiaren ekoizpenaren arabera irizpideak moldatu egin daitezke.